

5. KANALAK

Gure enpresak webgune bat eratuko du. Webgune horretan, gure enpresak zer egiten duen azalduta agertuz aparte, informazioa emateaz eta gure prezioak hor agertzeaz aparte, email helbide bat eta telefono pertsonal bat eskaintzen dugu. 2 bide horiek edonoren eskuan jartzen dugu gurekin komunikatu ahal izateko, dudak galdetzeko edota gure enpresa zertan datzan jakiteko (xehetasun gehiagorekin).

Oro har, esan dugunez, telefono zenbaki bat jarriko dugu baita egutegi bat ere, bezeroekin komunikatu ahal izateko, baina eskaera bat egiten badute (egutegian markatu eta baieztatu eskaera), erraztu beharko digute haien telefono-zenbaki bat (berdin du etxekoa ala pertsonala bada) haiekin harremanetan jartzeko, arropa hartu eta entregatzeko epea adosteko (jada eskaeran jarrita dago, baina ezustekoren bat gertatzen bada, komunikatu ahal izateko).

Konkretatu ahal badugu, pertsona zaharrekin edota ezgaituekin errazagoa izango zen haien telefono zenbakira deitzea adosteko noiz joaten garen haien etxeetara, telefono zenbakia ez badute, haien etxeko zenbakiari deituko diegu. Orduan, eskaera egiten dutenean eta zenbakia jartzen dutenean, deituko diegu dena konkretatzeko.

Bestalde, gurasoak izan diren gurasoentzat agian errazagoa da webtik ordua eta eguna hautatzea, inolako xehetasunarekin, eta galdera bat izaten badute, haiekin harremanetan jarri.

Ezagunak izateko, gure enpresak irratik publizitatea eratzea erabaki du. Publizitate honekin, herrialde osoko irratietan gure iragarkiak agertzea lortu dezakegu, baina bereziki, Euskal Herriko kanaletan. Gehien interesatzen zaigun irratik-kanalak direla eta.

Oro har, gure enpresan komunikabideak aldatu egiten dira gure bezeroen arabera. Helduen kasuan, gure kanalak bitarteko tradizionalagoetan oinarritzen dira, egungo tresna teknologikoak (mugikorra edo tableta, adibidez) erabiltzeko zailtasunak baitituzte. Horregatik, publizitatea egingo dugu egunkarien bidez. Hau da, publizitatea eta iragarkiak jartzea egunkarietan, egunkariak irakurtzen dituzten helduei heldu ahal izateko.

Beste bezero batzuk seme-alabak izatea espero duten gurasoak dira. Horregatik, erabaki dugu erditzeko-prestakuntza lekuetan liburuxka edo txosten bat ematea, haiek gure web-orrialdean sartzeko eta ikusteko zer eskaintzen dugun.

Hala ere, hitzaldiak emango ditugu erditze-prestakuntza zentro horietan, momentua heltzen denean haiek jakiteko guk laguntzeko prest gaudela. Sustatu dezakegun beste modu bat guk iragartzeko ospitaleko sarreran txosten horiek egotea da, edota gurasoei (amari) alta ematean, txosten hori ematea erizainak, baina horretarako Osakidetzarekin hitzarmen bat eduki beharko genuke. Jaioberriak dituzten gurasoek jakin dezaten gure zerbitzuak seme-alabekin denbora gehiago egoten lagundu ahal dietela.

Ezgaituak egun askotan badaude eguna irauteko lekuetan edo errehabilitazio lekuetan. Orduan, haiei ailegatzeko eta gure ideia aurkezteko, errehabilitazio lekuetan eta eguna irauteko zentroetan hainbat aurkezpen eta hitzaldi emango ditugu, zer nolako zerbitzua eskaintzen diegun azaltzen eta hainbat galderak erantzuten. Bestalde, familiekin batera, txosten batzuk banatuko ditugu pertsonalizatuak.



<https://plantxa-ezaguk.jimdosite.com>

SLOGAN: "Con nuestra plancha, ¡las arrugas se van de marcha!"